

Antoine d'Abbadie euskal zientzilariaren garaiko euskararen eta irlandערaren atzerapen garabidea (1810-1897)

(Irish and Basque language suffered regression in times of Antoine d'Abbadie, the Basque scientist (1810-1897))

Urtasun, Erlantz*
García Castañón, 2 - 6.
31002 Iruñea

* Eusko Ikaskuntza

Antoine d'Abbadie euskal zientzilariaren garaian (1810-1897) Mendebaldeko Europako bi hizkuntzek jasan zuten gibeleratze larria isladatu dugu lan honetan, irlandערak eta euskarak, hain zuzen. Lan honen bidez gibeleratze horren laburpen xumea eskaini dugu, atal bat nabarmendu dugularik: Nafarroan euskarak pairaturiko gibeleratze guztiz aipagarria. Horrezaz gain, azkenik, Eireko hizkuntzaren egungo egoerako datu batzuk plazaratu ditugu.

Giltz-Hitzak: Euskararen atzerakada. Irlandערaren atzerakada. Nafarroako euskal eremua (1810-1897).

En el presente trabajo hemos recogido el grave retroceso sufrido por dos lenguas de Europa occidental durante la época del científico euskaldun Antoine d'Abbadie (1810-1897): euskara e irlandés. Ofrecemos un breve resumen al respecto con un análisis más profundo sobre un apartado concreto, el muy reseñable descalabro del euskara en Nafarroa. Para finalizar añadimos algunos datos sobre la situación actual de la lengua nacional de Eire.

Palabras Clave: Retroceso del euskara. Retroceso del irlandés. Zona vascofona de Navarra (1810-1897).

Nous avons rapporté dans ce travail le grave recul souffert par deux langues d'Europe occidentale durant l'époque du scientifique euskaldun Antoine d'Abbadie (1810-1897): le basque et l'irlandais. Nous en offrons un bref résumé et une analyse plus profonde sur un thème concret, la déchéance significative de l'euskera en Navarre. Pour finir nous ajoutons quelques données sur la situation actuelle de la langue nationale de l'Eire.

Mots Clés: Régression de l'euskera. Régression de l'irlandais. Zone bascofone de Navarre (1810-1897).

Lehenik eta behin ohar bat. Abbadiaren bizitza eta bere lanaren azterketa biltzar honetako bertze hitzaldi batzuetako aztergaia izan denez, ez dugu hemen deus errepikaturen eta, beraz, hizkuntzari ekinen diogu. Era berean, eta programan iragarri denez, euskararen egoera gehiago landuren dugu, Nafarroan batik bat, irlandararena baino. Honela ez dugu denbora luzeegia erabiliren.

Abbadia euskal zientzilariaeren heriotzaren ehungarren urtemuga beteko da aurtten. Euskal Herritarra zen. Baina bere bertze aberria, ez lehena ez bigarrena, Eire (Irlanda) zen. Erbestean bizi zen zuberotar familiakoa izanik, Eiren jaio eta igaro baitzuen haurtzaroa. Munduan zehar bidaiatu eta ikertu ondoren 1853. urtean itzuli zen Euskal Herrira, euskal kultura babestera.

Noiz bizi zen kontuan hartuz gero, halaber, handitzen zaigu interesa. Izan ere, Eire eta Euskal Herria, bere bi aberriek, arlo guzietan (hizkuntza, kultura, politika, ekonomia) garabide berdintsua pairatu zuten. Alderaketa ezinbertzekoa da. Euskal Herriak, Frantzia eta Espainiako jazarpenaren ondorioz, lege zaharrak *manu militari* galdu zituen, bera jaio baino urte batzuk lehenago Iparraldean eta gaztea zela Hegoaldean. Era berean, Erresuma Batuak Eiren bertakoen aurka inposaturiko apartheidia eta kolonizazioa –lurren banaketa baztertzaila kasu–, bizkortu egin zuen eta irlandarren berezko antolaketa hondarrak ere ez ziren onartu. Euskal Herriak gudak galdu ondorengo errepresio latzak eta Eiren Erresuma Batuak bultzaturiko gose ikaragarriak patu bera eskaini zien bi herriei, euskal eta irlandar jende xumeari: erbeste politikoa edota ogi bila kanpora joaitea. Élisée Reclus geografoak, Parisko Komunaren parte hartu zuenak zioenez: “*Euskal Herria, bere lurretik kanpora doan herria*”. Eskerrak Bonaparte printzea, bederen, etorri zen.

Porrot orokor honetan lagun anitz hil ezezik, bi nazioen hizkuntza eta kultura ere desagertu ziren mendeetako eremu zabaletatik. Hamaika aldiz aipatu da mende luzez hizkuntza muga nahikoa finkoa zela eta XIX. mendea dela irlandera nahiz euskararen gibelerapen historikoaren garairik garrantzitsuenak. Baina ez da horrela. Gibeleratzea etengabea zen bi herrialdeetan mendez-mende. Dena den, egia da XIX. mendea igaro ondoren Euskal Herria eta Eire betikotz errekara joateko bidean zeudela. XIX. mendearen amaierarako euskara mediterranearen munduan desagertua zen eta orduan hasi zen egun topiko bihurtu dena, hots, euskara baserrietan soilik hazi dela. Bertzalde, uharte osoan bizirik zegoen irlandarrek ez zuten kostaldeko lurralde txiroetan ere babes iraunkorrik ediren.

EUSKAL HERRIA XIX. MENDEAN. Mende honetan areagotzen dira lehenagotik euskaldunak erdalduntzeko erabiltzen ziren hainbat teknika: eskolak, eskribauak, apaizak, legeak, errepresio militarra,... Presio honen bidez eremu elebarkarretan gaztelera sartzen zuten euskaldunak elebidun bilakatzeko eta elebidunak zirenean euskara guziz baztertzeko, belaunaldi gutitan desagertaraziz. Nola zen euskararen muga mende horren hasieran? Hegoaldean, Santurtzitik Aiarako mugetaraino euskara bizirik zegoen, Bilbo barne, ordezkatze kulturala hagitz aitzineraturik zegoen arren. Aiaratik Langraitz arte euskara egoera kaskarrean. Udako (Trebiño) iparraldean ere aiton-amonen ahotan hiltzen ari zen. Handik Ameskoetaraino. Lizarrerriko iparraldetik Izarbeibarrera, Artaxonan azken elebidunak eta Tafallako euskaldun elebarkar multzoa edireten ditugu. Ekialderantz Bizkaia igaro eta Irunberri inguruko eskualde elebidunetan zehar igotzen gara Burgiraino. Iparraldean, berriz, egungo mugak baina elebitasun diglosikoa Biarno eta BAM ingurutik urruntzen ari zen.

Euskal Herriaren gibelerapen orokor honetan gehien aipatu dena Nafarroa izan denez, tarte zabalagoa eskainiren diogu Nafarroako egoerari. Hona hemen hainbat datu argigarri.

• Bonaparte printzearen mapan margoturik azaltzen ez zaigun Lizarrerriko ipar-iparmen-debaldea XIX. mendearen hasieran euskalduna zela dirudi –arrunt edo ahula–:

(a) Amillao herria arrunt euskalduna omen zen 1806. urtean, hain zuzen ere Lizarratik 7 km. iparmen-debalderantz. Gares ere bai, antza, urte berean.

(b) 1842an De Barres militarren ustez Lizarrerrian euskara hiltorian zegoen:

“[...] *En Estella los jóvenes no hablan en vasco, sólo los viejos de los pueblos cercanos conocen ya ese idioma.*”.

(d) XIX. mendearen erdi aldean Eraulen eta Abartzutzan, hain zuzen ere Lizarratik 7 km. iparralderantz, euskara bizirik zegoen oraindik:

“*J.M. Lacarra conoció a un vecino de Estella que falleció en 1930 a sus 90 años de edad, quien le aseguraba que, a los 18 años, oía hablar entre ellos en vascuence a los carboneros de Eraul y Abárzuza, según le refirió el historiador a J.M. Lander. Eraul habría dejado de ser euskaldún a mediados del siglo XIX.*”.

• Bonaparte printzearen mapan margotu gabe azaltzen zaigun Tafalla hirian, Erriberako atarian, euskaldun batzuk gelditzen zirela dirudi:

(a) Agiri baten arabera XVIII. mendearen amaieran haur euskaldun elebakar batzuk bizi ziren Tafallan, orduko batz bertzeko 12 urteko haur horiek XIX. mendearen lehen erdi aldean Tafallan bizi zirelarik, jakina.

(b) Bertze aipu baten arabera lehen gerrate karlistan (1834-1839) euskara erabiltzen omen zuten “*a las mismas puertas de Tafalla*”.

(d) Espainiar errege eta erreginari ongi etorria emaitako idazkun bat egin omen zuten Tafallan 1828. urtean. Desagerturik badago ere, honelako esaldi bat idatzi zuten:

“*Forastero, peregrino y prudente, no pases de largo a través de esta tierra vasca [...]*”.

• Alta, XIX. mendearen lehendabiziko urteetan Erribera eta Mendialdeko muga osatzen duen Artaxona herrian hil ziren bertako azken euskaldun elebidunak. Erraiterako, hainbat lanetan 1804. urtea azaltzen zaigu.

Laburbilduz, XIX. mendearen hasierako aipamen hauen bidez Nafarroako euskararen eremua, arrunt euskalduna gehi elebidun ahula, Mendialdea eta Erriberako mugetaraino eraman dugu. Edonola ere, datu bat aipatu beharra dagoela uste dugu. Izan ere, Nafarroan egun euskaldun elebakar bakan batzuk bizi direla ezaguna da. XIX. mendearen hasieran, berriz, bi euskal eremu horietan euskara nagusi zela dirudi, euskal elebakartasunaren inguruan adibide franko baitago. Hona hemen batzuk:

• 1811. urtean Iruñeko karrketan Reille agintari militarrek jarririko oharrak euskaraz ere idatzirik zeuden.

• Aurreko auziareki loturik, Espoz y Minaren laguntzailerik garrantzitsuenerikoa, Felix Sarasa –Txolin–, Berriogoitin jaio eta Artikako etxalde handi bateko nagusia zen. Euskaldun elebakarra zen: Dirudinez gatzelera nola hala ulertzen zuen, baina ez zen mintzatzeko gauza.

• 1820. urtearen inguruan euskaldun elebakar anitz bizi zen Iruñerrian:

–“*uno de los testigos es Juan José Andueza, de Ariz, de 41 años, al que se dio a comprender el asunto “en su lengua vascongada”. No se trataba de algún inmigrante*

de la Montaña, sino de un labrador de la tierra, que además, había ocupado el cargo de regidor en 1812, en plena guerra, cuando los aldeanos tenían que entenderse con el cruel jefe de la policía francesa, Mendiri. En la misma situación se encontraban: Martín Larunbe, exregidor de Atondo, ya pegado a Osquía; Juan José Nabar, de Sarasa, en el mismo camino real de Guipúzcoa; Martín Félix Peruchena, de Erice, de 18 años, pastor. Esto quiere decir, que, a la vista de las murallas de Pamplona, en lugares atravesados por el camino real y de más contacto con gente de varia procedencia, el euskera se conservaba y aun gozaba de buena salud.”.

· XIX. mendearen hasieran aiton-amona euskaldun elebakarrak eta euskara nagusi edota euskara arrunt nagusi azaltzen zaigu Iruñea ondoan kokaturik dauden honelako herri eta haranetan: Azpa, Oloki, Zulueta, Galar-Ezkirotz, Noain, Badoztain eta, oro har, Eguesibar –Lizarraga izeneko apaiza oroitaraz dezagun–, Zizur Nagusia (1804 eta 1858), Otao (1801), Zabalegi (1808).

· Bonaparte printzearen mapan euskal eremu nagusi eta ahularen arteko mugetan margoturik azaltzen zaigun Ibero herrian 1807-1831 urte bitartean euskal testu erlijioso bat idatzi zuten bertan erabiltzeko, hots, euskararen egoera Iberon hagitez hobea zen XIX. mendearen hasieran erdi aldean baino.

· 1826. urtean Xulapaingo Nuin herrian, hain zuzen ere Iruñetik 15 km. iparralderantz, euskaraz erabiltzeko erdarazko liburu erlijioso baten laburpen bat egin zuten.

· 1828. urtean Ezkabarteko Makirriain herrian dotrina bat idatzi zuten euskaraz, hain zuzen ere Iruñetik 10 km. iparralderantz. Antza denez, 1878. urtea arte haran bereko Zildotz herrian euskaraz predikatu zuten –urte horretako sermoi bat euskaraz idatzi baitzuten–.

· 1820. urtean toki hauetako abeltzainen artean euskararen erabilpena nagusia zen: Lezaun, Mañeruibar, Etxauribar eta Gesalatz. Agiri horren arabera, Etxauriko Zabaltzako lagun bat euskaldun elebakarra zen, itzultzailea behar baitzuen. Bonaparte printzearen mapetan haran hauek margotu gabe edo muga ahuletan azaltzen dira nagusiki.

· XIX. mendearen erdi aldean Ibargoitzi eta haran horretako Idotzin erdara eta euskara ahularen mugetan kokaturik azaldu zaigun arren, badirudi XIX. mendearen hasieran euskal elebakartasuna bizirik zegoela, Espoz y Mina militar ezagunaren inguruan honela agertuz:

– “[...] *poseía perfectamente el vascuence, no dominaba de igual modo el castellano* [...] –eta bere arreba, Iruñera bizitzera joan bazen ere– *nunca llegó a hablar correctamente el castellano*”.

· 1805. urtean Gergetiain eta Indurain herrietan, hain zuzen ere Irunberritik 8 km. ipar-mendebalderantz, euskara arrunt nagusia zen. Antza denez, inguruko herri eta haranetan gauza bera gertatzen zen: Artzibar, Itzagaondoa, Longida, Agoitz, Urraulgoiti, Aezkoa –Aribe (1813)–.

· XVIII. mendean zehar eta 1835. urtea arte Goñerrin hainbat euskal testu erlijioso idatzi zuten bertan erabiltzeko. Halaber, XIX. mendearen lehen erdi aldean haran horretako Azantza herrian Zarauzko misiolariak predikatzen zuten.

· 1832. urtean Ollarango Egillor herrirako aginduriko apaiza ez zen euskalduna, euskara ikas zezan urtebete eman ziotelarik.

· 1820. urtean Garesko tabernari bat euskaldun elebakarra zen, apika. 1866. urtean, berriz, Garesko euskara ia hilik omen zegoen.

• 1806. urtean Etxarri Aranatzen haurrek ez zekiten gazteleraz, Udalak eskolako irakasleak erdaldun zitzaizkien neurriak hartzea erabaki zuelarik.

• Lekaroz herria arrotz euskalduna zen lehen gerrate karlistan.

• 1828ko otsailak 6an euskal elebakartasuna agerian dago Luzaiden:

“*El vicario –eskutitz bat irakurtzerakoan– [...] anunció a sus feligreses su contenido, explicándoles en lengua del país [...]*”.

XIX. mendearen lehen erdi aldeko datu hauek Nafarroan ezezik Euskal Herriko bertze herrialdeetan ere jazo ziren, hots, urte horietan euskararen atzerakada ez da bakarrik nafarra. Izan ere, adibide anitz dago:

– Iparralde: Von Shack kontiaren testigantza arabera,

“–1837. urtean– *En mi excursión por territorio vasco francés encontré diversas personas que no entendían una palabra de francés, por lo que me hallé realmente en dificultades, ya que no podía obtener informe alguno sobre la dirección del camino a emprender.*”.

– Arabako Lautada: Dulantziko Pablo Mendibil (1788-1832) idazlearen testigantza Londonen, eskolako eratzunaren erabilera zela eta.

– Bilbo-Enkarterriak, etab.

Hitz batez, Bonaparte printzearen mapetan era ahul batean margotuz azaltzen zaizkigun lurraldeetan mende erdia lehenago euskararen egoera hobea zen. Hainbat kasutan, mende erdia beranduago eremu horretan euskara hil zorian zegoen arren, euskal elebakartasuna ere bizirik topatu dugu. Ildo berean, Bonaparte printzearen mapetan margotu gabe azaltzen zaizkigun hainbat lurraldetan euskara bizirik zegoen, era ahul edo indartsu batean: Lizarrako inguruak, Tafalla, Artaxona.

Ezin dugu ahanzi, halaber, ezagupena eta erabilpenaren arteko ezberdintasuna, gertaera honek benetako hizkuntza egoera –orduaz ezezik (Agoitzaldea, Iruñerria) orain ere (Sakana)– desitxuratu baitugu, hots, elebitasuna amaitzen ari den lurraldeetan euskara hilik dagoela iruditzen ahal zaigu, benetako euskal eremua murriztuz.

Azken finean, Hegoaldean zein Iparraldean euskaldun elebakarrak ziren hainbat lurralde nahiz eremu elebidunak erdal elebarrak bilakatzeari, erdal mugetatik urrunago zeuden eremu elebakarrak zirenak elebidun diglosiko bihurtzea gehitu behar diogu, irakurketa zuzena egin dezagun. Era berean, oraindik euskaldunak ziren inguruak demografikoki hustutzen ari ziren.

XIX. mendearen amaieran, berriz, hau galdu dugu Euskal Herrian: Ezkerraldea, Bilbo eta inguruak hagitik gaizki zeuden eta handik antzera Laudioraino. Aiara, Arabako lautada, Lizarrerriko iparralde, Izarbeibarra, Orba eta Iruñerria erdaldunak dira. Ondoren Artzibarretik jarraitu Zaraitzu eta Errokariraino. Erdara sartuz Irati Oihanaren baitan. Iparraldean nagusiki inguruetako elebidunei agur eta gibelera Aturritik barnealderantz, kostaldean batik bat. Barnealdeko elebakartasuna, azkenik, jota. Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Tafalla, BAM,... Hiri gehienetan erdal mundua nagusi. Euskal Herria ez da hiritarra jadanik. Sebero Altube, Gernikako arrasatearra, Bizkaiko hirietaz kexu da. Donostian, berriz, Euskal Herria biziago dago.

1904ko agiri baten arabera hau zen Nafarroako euskal eremuaren hegoaldeko mugaketa: Sakana osoa euskalduntzat hartu zuten. Hegoalderantz Olo, Itza-Aldatz, Itza-Oderitz, Ultzurrun, Goñi eta Urdotz euskaldunak ziren. Atondo, Olo-Egillor eta Munarritz, berriz, ez.

Xulapain aldean Aristregi euskalduna zen eta Ezkabarterantz Untzu eta Garbes ere. Saratsa, berriz, ez. Iruñea inguruan Atarrabia eta Uharte ez ziren euskaldunak baina Sorauren, Olloki eta Elkano bai. Eguesibarretik Artzibar alderantz Aginaga, Urdirutz, Nagore, Gurpegi, Usotz, Ulotzi, Arizkuren eta Ekitza euskaldunak ziren. Uritz eta Urrizelki zalantzagarriak dira eta Aristu ez omen zen euskalduna jadanik. Zaraitzu euskalduna zen eta Nabaskoze Almiradioa, berriz, ez. Erronkariko Bidankoze, Izaba eta Uztarrotze, azkenik, euskaldunak ziren.

Edonola ere, gure irudiz mugaketa hau eztabaidagarria da. Hona hemen kontuan hartzeko hainbat arazo:

(1) Burundako euskararen egoera orokorrak ez digu uzten eskualde hau Nafarroako euskal eremuan kokatzen, Olazti eta Altsasu batik bat. Urdiain edo Bakaiku bai, jakina. Hitz batez, Burunda gehiena euskal eremuaren inguruan zegoen euskara ahulagoaren eremuan kokatzea nahiago dugu.

(2) Arakil haranareki antzeko arazoa dugu. Hain zuzen ere, Irurtzun inguruko herrietan euskararen erabilpena ahula zen jadanik, haurrak eta gazteak erdaraz mintzatzen zirelarik nagusiki.

(3) Ollaranen, Goñerrin, Gulibarren, Itzan, Xulapainen, Ezkabarten eta Olaibarren euskararen egoera, oro har, ahula zen, herri batzuetan ia ez zegoen euskaldunik eta bertze batzuetan aiton-amonak oraindik euskaldun elebakarrak ziren. Haurrak eta gazteak ez ziren, oro har, euskaldunak, salbuespenak salbuespen.

(4) Auñamendi aldeko hainbat herritan ere euskararen erabilpena ahula zen jadanik. Euskal eremuan honako eskualdeak kokaturen ditugu: Esteribarreko iparraldea, Erroibar, Auritz, Artzibarreko iparraldea, Aezkoa, Zaraitzuko iparraldea eta Uztarrotze.

(5) Lizarrerriko iparrekialdean, Izarben, Iruñerrian zein Iruñean bertan, Agoitz aldean, Longidan eta Urrautetan, Nabaskoze Almiradioan eta Erronkaribarren zehar euskaldun zaharrrak gelditzen ziren nonahi. Bertzalde, eskualde hauetako batzuetan historian zehar hizkuntz egoeraren mugaketa burutzea hagitz konplexua dela erran beharra dago.

EIRE XIX. MENDEAN. Zer gertatzen zen, garai horretan, Eiren? Hasieran irlandera populazioaren gehiengoaren hizkuntza nagusi zen, jende txiroena batik bat. 1845-1848ko goseteaz baliaturik Erresuma Batuak sorturiko emigrazioaren bidez Eireko biztanlegoa hamar milioitik lau milioira jeitsi zen hamar urte eskasetan: Irlandera hil zorian gelditu zen. Bertzalde, hizkuntzaren aurkako errepresioa *–eraztuna-scoreen* kasu– Euskal Herrian bezala ezarrita zegoen. Hots, gibelera joz gero balizko berreskurapena ezinezkoa zen. Gertatu zena, hitz batez, mendeetako garabidearen bizkortze bortitza izan zen. Mendearen amaieran irlandera, oro har, bakarrik mendebaldeko kostaldean zegoen bizirik. Orduan, Euskal Herrian bezala, hizkuntza berreskuratzeko taldeak sortu ziren. Berant.

“Hizkuntza irlandera baldin bada, bihotza irlandarra izanen da”. Honela erran omen zion aspaldi Edmund Spencer, goi mailako ingeles funtzionario batek, orduko Erresuma Batuko erreginari. Dirudienez, 1840. urtean irlandera zekitenak ingelesadunak baino gehiago ziren. 1851. urteko eroldaren arabera, berriz, soilik %23k zekien irlanderez. Arras alfabetatugabeak, gainera.

Egun, antza denez, 17.000 elebidun gelditzen dira *gaeltacht* eskualdeetan. Pat Rice, Belfasteko irakasleak, honela laburbiltzen du gertatutakoa: *“genozidioa”*. Ó Cadhain historiakoaren ustez *“irlandera Eireko berkonkista da eta Eireko berkonkista irlandera da. Herriaren*

hizkuntzak herria berpiztuko du". Horregatik, beharbada, kontzientzi eta bultzada handiagoa gertatzen ari da Sei Konterrietan Dublinen esparruan baino –astean 70 ordu bakarrik *Radio na Gaeltachta* irratiari–. Izan ere, preso politiko errepublikarrak irlandera bizi dira espetxeetan. Egunkaria, irratiak, ikastolak, euskaltegiak, barnetegia Ulster zaharrean. Aipagarria da Belfasten dagoen *Culturlann* kulturgunea, bertatik irlandera berreskuratzeko azken urte hauetako saiakerarik garrantzitsuenak baita: eskola, irratiak, aldizkaria, liburutegia, helduentzako eskolak... Baita duela 40 urte guraso talde bat bildu eta irlandera soilik hitz egiten zuen auzoa sortu zutela ere, bertan bizitzeko baldintza bakarra irlandera jakitea baita. Gerry Adams buruzagiaren erranetan "*irlanderaz ez bizitzeak dakarrena da ingeles-amerikar zabortegei kultural gisa bizitzea*".